

## **Samaniegoren fabula edo alegien itzulpen bilduma** (Euskal itzulpenaren historiaren zatitxo bat)

Lurdes Auzmendi

1784. urtean argitaratu zen lehen aldiz **Fábulas en verso castellano para uso del Real Seminario Vascongado** izenburua zeraman Félix María de Samaniegoren liburua. Bertan guztira 177 fabula daude; batzuk Samaniegok berak asmatuak dira, eta beste batzuk Esopo, La Fontaine, etabarren itzulpenak.

Samaniegoren fabula edo alegiak hizkuntza askotara itzuli ziren, baita euskarara ere. Agustin Iturriaga izan zen alegia hauetako batzuk euskaratu zituen lehena. 1824ean argitaratutako **Ipuyac eta beste moldaera batzuec** liburuan bildu zituen gehienak, bere heriotzaren ondoren **Cancionero Vasco**-n bertsiio ezezagun batzuk argitaratu zirelarik. Iturriagaren itzulpenak eta honek idatzitako jatorrizko beste batzuk, guztiak Auspoa argitaldariaren liburu sailean argitaratu ziren 1967. urtean.

Baina Iturriaga izanik ere Samaniegoren alegia gehienak itzuli zituen, beste batzuk ere ihardun zuten lan horretan, hala nola Felipe Arrese Beitia, Jose Antonio Uriarte, Mateo Zabala, Josu Egea, etab.

Joan den mendean, alegiak euskararatzeko zaletasun handia egon zen Euskal Herian. Samaniegoren fabulen itzulpenez aparte, aipatze-koak dira J. B. Archuk 1848. urtean eta L. Goyhetchek 1852an eza-gutzera eman zituzten La Fontaineren itzulpenak. 1921. urtean hasita berriz J. Altunak **Euzko Deya** aldizkarian Esoporen zenbaitzuren itzulpenak argitaratu zituen.

Esan bezala, Samaniegok bai Esopo eta baita La Fontainerenak ere itzuli zituen gaztelerara, zaila gerta daiteke beraz kasu batzutan euskaraz emandakoak jatorrizkotik ala Samaniegoren itzulpenetik itzulita dauden jakitea.

Baina, itzulpenei buruzko beste xehetasun batzurekin jarraituz esan, liburu edo bilduma gisara Iturriaga eta Egearenak bakarrik argitaratu zirela. Egearenak hain zuzen Arabako Foru Aldundiaren laguntzarekin 1979. urtean argitaratu ziren eta oraindik liburutegiren batean aleren batarkitu daiteke, baina Iturriagarenak aurkitzeko biblioteketara jo behar da, azken argitalpena ere erabat agortuta bait dago. Beste itzulpenak berriz, Arrese Beitia, Uriarte, eta besteenak XIX mendearen bukaerako edo XXaren hasierako aldizkarietan argitaratu ziren; Iturriagaren batzuk, Uriarte, Iza y Aguirre, Serafin Baroja, Mogel, etabarrenak **Cancionero Vaso-n**; Arrese Beitiarenak **Euskal Erria-n**. **Euskerea** eta **Euzko Deya** izan ziren Samaniegoren fabulen itzulpenak argitaratu ziren beste aldizkari batzuk.

Kasu gehienetan itzulpenaren forma jatorrizkoarena da, bertsoz daude, baina batzutan prosaz ere itzuli ziren.

Euskal itzulpenaren historia ezagutzeko, euskararen erabilpena, itzulpenen eboluzioa aztertu eta ikasteko eta nola ez, itzultzen ere ikas-teko, material interesgarria izan daiteke hori guztia.

Material honen interesa zertan datzan ikusi ahal izateko, hona hemen datu batzuk: La Fontaine-Samaniegoren **La Lechera** fabula eza-gunaren sei itzulpen desberdin daude, sei itzultzaile desberdinen lanak dira. Iturriagak berriz, alegia batzuren itzulpen desberdinak egin zituen, honela **Aizkora** eta **kirtena**-ren bi bertso daude, **Mendia aurgiten** alegiaren bi bertso baita ere, eta **Otsoa** eta **artzanora**-renak hiru bertso. Itzulpen guztien bilketak izan dezakeen garrantzia era erakuts ditzakeen bitxitasunak ikusi ahal izateko, hona hemen azkeneko fabula horren hiru bertsoen zati bana:

**Otsoa eta artzanora**

Otso handi bat  
Mendiak gora  
Zijoala goiz batean,  
Artzanor andi  
Batekin topo  
Egin zukean bidean;  
Zeuden lekuan  
Gelditu ziran  
Biak elkar ikustean.  
Gaitz egiteko  
Griña gaiztoa  
Batek badakar jatorriz,  
Gaztetandika  
Ez badu uzten  
Gaitza egingo du berriz,  
Emandezala  
Mila eta milla aldiz.

**Artzanora eta otsoa**

Otsoak zijoala  
Bein mendia gora  
Topos topo arkitu  
Zuen artzanora.  
Gelditzen dira biak  
Elkarri begira,  
Ez batak ez bestea,  
Ez nairika jira.  
Egoteaz bakoitza  
Nekatu zanean,  
Lotsaren ordean,  
Asi ziran egiten  
Elkarri agura,  
Lenbizi otsoa,  
Azkena zakurra.  
.....  
Maiz badirade ere  
Sermoiak aditzen  
Jatorrizko griñak  
ez oi zaie uzten.

**Otsoa eta artzanora**

Artzaiak zeukazkiten  
Mendian zepoak  
Otso gaizto andi bat  
Arrapatzekoak;  
Artzanorak zebiltzan  
Gañera or emen  
Non ta nola otsoa  
Atzemango zuten.  
Onek jaten zizkaten  
Ziran arkumeak  
Eta arras galtzera  
Zoaien artaldeak.

Otsoak ta artzanorak  
Elkar topos topo  
Egin ondoren, daude  
Nork nori erasoko.  
Biak ziraden guztiz  
Mutil balienteak,  
Faltarika egiten  
Ez zien korajeak.  
Griña gaiztoak badira  
Gaztetandik artzen  
Bizia dan artean  
Ez dirade usten.

Hauek dira beraz Samaniegoren **El Lobo y el Mastín** fabularen itzulpenaren hiru bertsioren zatiak; berorien hasiera eta moraleja edo alegia jaso ditut. Ikus dezagun jatorrizko bertsiota:

### El Lobo y el Mastín

Trampas, redes y perros  
los celosos pastores disponían  
en lo oculto del bosque y de los cerros,  
porque matar querían  
a un Lobo por el bárbaro delito  
de no dejar a vida un cabrito.  
Hallóse cara a cara  
un Mastín con el Lobo de repente,  
antes de la batalla muy serenos,  
Anibal y Scipión, ni más ni menos.  
Con una represión, con un consejo  
se pretende quitar un vicio añejo?

Hiru itzulpenetan amaia berbera da, nahiz eta zenbait deskribapen desberdinak izan. Lehenengoa da halere desberdinena, metrika bera ere desberdina delarik. Hirugarrena da jatorrizkoari gehien lotzen zaiona, halere jatorrizkoa baino deskribatzaileagoa, zabalagoa da, eta orohar hau da Iturriagaren itzultzeko era, jatorrizkoa beti aberastu egiten bait du. Hau da noski hemen ikusten denari buruz egin daitekeen azterketarik laburrena.

Itzulpen bilduma hau Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen diru-laguntzarekin burutu ahal izan dut eta momentuz bertako bibliotekan aurkitzen da.